

Bergaran, bi mila eta hogeita hiruko otsailaren 20an, ondorengoak

BILDU DIRA

Alde batetik, Gorka Alberdi Artola, Bergarako Udaleko Alkate-Lehendakaria, Bergarako Udalaren izenean (egoitza Bergarako San Martin plaza, z/g-ean du, eta IFK zenbakia P- 2007900-J du).

Beste aldetik, Iosu Elorza Alberdi (44342842-S NAN zenbakia duena), Bergara Kirol Elkarteko lehendakaria, elkartearen izenean (Bidekurutzeta 20an du egoitza soziala eta IFZ: G-20186664).

Iosu Elorza Alberdi jaunak zinpean alkate jaunaren aurrean aitortu du bera eta berak ordezkatzeko duen elkarte ez daudela Estatuaren 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak aurreikusitako debeku kasuetan eta ezta Administrazio Publikoarekin hitzartzeko inolako bateraezintasun edo ezgaitasun arrazoietan ere sartuta.

Eta ondoren, bi aldeek elkarri aitortzen diote behartzeko gaitasuna eta, hala, honako aurrekari hauek azaltzen dituzte.

AURREKARIAK:

Bergara Kirol Elkarteko Pilota Saila eta baita Bergarako udala ere jakitun dira hainbat kirolekin emakumeek duten presentzia areagotu beharra dagoela.

Bai elkarteak eta baita Udalak ere uste dute emakumeak kirola egitera bultzatzeko modu bat izan daitekeela emakumezkoentzako txapelketak antolatzea. *Bergara Hiria Pilota txapelketa antolatzea* ona izan daitekeela uste dute; herriko eta inguruko neskei erreferenteak eskaini ahal izateko eta emakumezkoen kirola sustatzeko.

Gauzak horrela, adostu dute 2023, 2024, 2025 eta 2026. urteetan, *Bergara Hiria emakumezkoen Pilota txapelketa* antolatzea eta bi aldeek hartzen dituzten betebeharrak hitzarmen batean jasotzea.

Beraz, bi aldeak ados egonik, ondorengo klausulak dituen hitzarmena hitzartzen dute:

KLAUSULAK:

Lehenena.- Bergara Kirol Elkarteko Pilota Sailak *Bergara Hiria Pilota txapelketa* antolatuko du. Txapelketaren ezaugarri orokorrak Udala eta elkartearen artean adostuko dituzte.

- Bergarako udalak, berriz, txapelketa horiek antolatzeko instalazioak, baliabideak eta, txapelketa antolatzen den urte bakoitzean, gehienez 2.800 euroko finantzazioa jarriko du.
- Bergarako udalak ez du bere gain hartzen txapelketan gerta daitezkeen istripuen edo beste edozein kalteren erantzukizunik.
- Horretarako, txapelketa baino gutxienez hiru (3) hilabete lehenago elkarteak idatzi bat aurkeztuko du udalean eta bertan azalduko du zein instalazio eta udal baliabide behar dituen

eta txapelketako aurrekontua. Udalak txapelketa baino gutxienez bi (2) hilabete lehenago erabaki eta jakinaraziko du hartutako erabakia.

- Txapelketa horiek burutzeko betebeharrak eta gastu guztiak bere gain hartuko ditu elkarteak, ez baditu udalak espresuki hitzarmen honetan edo une bakoitzean hartuko den erabakian bere gain hartzen.

Halaber, honako konpromiso hauek hartzen ditu elkarteak:

- Antolatutako ekitaldiak "Bergara Hiria Pilota txapelketa" izena izango du.
- Aurkezpena egitekotan, Udal ordezkariekin adostu beharko da, eta hauen presentzia bermatu.
- Sari banaketan Udal ordezkarien presentzia adostu beharko da.
- Gutxienez euskara erabiltzea ekitaldi eta idatzizko komunikazio publikoetan: iragarki, ohar eta abar.

Ahozko komunikazioetan, bi hizkuntzak erabiliz gero, euskarari emango zaio lehentasuna, euskarazko aurkezpena erdarazkoaren aurretik eginez.

Era berean, idatzizko komunikazio elebidunetan ere, euskarari emango zaio lehentasuna, bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa erdarazkoaren gainean), bai neurriaren aldetik. Testuak hizkuntzaren aldetik zuzen idatziak daudela egiaztatzeko, Euskara Zerbitzura eraman ahalko dira.

- Gizon eta emakumeen berdintasunari dagokionez, udalak markatutako irizpideak jarraitu beharko ditu elkarteak. Jarduera, proiektu edo programarekin lotutako iragarki eta komunikazioetan ez da erabiliko ez hizkera ez irudi sexistarik, estereotipo eta rolak alde batera utziz. Era berean, ezingo da diskriminatu sexu-arrazoiengatik. Eta emakumeen presentzia eta parte hartzea eremu guztietan ahalbidetuko da (zuzendaritzan, bazkideen artean, erabiltzaileen artean eta abarretan).

Bigarrena.- Emandako diru-laguntza ekitaldia amaitzen denetik kontatzen hasita, gehienez ere bi hilabeteko epean ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko ditu elkarteak:

a) Diru laguntza "ordaintzeko" eskaera-ordria, behar bezala beteta eta sinatuta.

b) Diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla justifikatzeko jarduketa memoria bat; eta bertan honako hauek jaso behar dira:

- Zenbat pertsonak hartu duten parte zuzenean ekintzetan.
- Zein hizkuntza erabili den jardueren garapenean.
- Lortutako helburuen justifikazioa.
- Zein jarduketa egin diren ekologia eta ingurumen aldeko balio iraunkorrak sustatzeko.

c) Jarduerako gastuen zerrenda sailkatu bat, onuradunak edo ordezkariak sinatutakoa, eta aitortzailearen identifikazioarekin. Bertan datu hauek jasoko dira:

- Hartzekoduna (NAN, IFK, izen-abizenak, helbide soziala ... balego).

- Dokumentuaren identifikazioa (faktura-zenbakia, ...).
- Fakturatutako gastuaren kontzeptua edo pareko dokumentuan jasotakoa.
- Fakturaren —edo pareko dokumentuaren— zenbatekoa.
- Fakturaren —edo pareko dokumentuaren— jaulkipen-data.
- Fakturaren —edo pareko dokumentuaren— ordainketa-data.

d) Diru-sarreraren zerrenda sailkatu bat, onuradunak edo ordezkariak sinatutakoa, eta diru-sarrera egin duenaren identifikazioarekin. Bertan datu hauek jasoko dira:

- Diru-sarrera egin duena (NAN, IFK, izen-abizenak, helbide soziala ... balego), eta kopurua.

d) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarreraren edo diru-laguntzen xehetasun-zerrenda, horien zenbatekoa eta jatorria adierazita, eta eskatu edota jaso ez bada, zinpeko aitorpena.

e) Diruz lagundutako jardueraren diru-sarreraren eta gastuen balantze bat, onuradunak edo entitateko ordezkariak sinatuta; sinatzailea identifikatuta gelditu behar da (NAN eta izen-abizenez).

f) Programatutako jarduerari buruzko dokumentazio grafikoa (hala badagokio)

g) Diru-laguntza aurrekontu bati lotuta eman bada, desbiderapenak zeintzuk izan diren, halakorik egon bada.

Hala ere, dirulaguntza behar bezala aplikatzen dela era arrazoituan egiaztatzeko, Bergarako Udalak laginketa-tekniken bidez egiaztatuko du, hau da, eskatzaileek aurkeztutako zerrenda xehatuaren faktura bat edo batzuk eskatuko ahal izango ditu.

Hirugarrena.- Hitzarmen hau indarrean egongo da 2026ko abenduaren 31ra arte. Bi aldeetako batek aurrez hitzarmena bertan behera lagatzeko borondatea badu, urte bakoitzaren azaroaren 30a baino lehen jakinarazi beharko dio, beste aldeari.

Laugarrena.- Bigarren atalean zehaztutako agiriak aurkeztu ondoren, Udalak gehienez bi hilabeteko epean ordainduko dio elkarteari dagokion laguntza.

Bosgarrena.- Diruz lagundutako ekintzen publizitatean (kartelak, esku-programak...), Bergara kirol elkarteak Bergarako Udalaren laguntza duela adierazi beharko du.

Seigarrena.- Udalak egingo duen diru-ekarpenaz gain, helburu bera duen beste edozein diru-laguntza ere jaso daiteke, eta Udalari aurkeztuko zaion txosten ekonomikoan sarreretan azaldu beharko da.

Hala eta guztiz ere, diru-ekarpenak (Udalarenak edo beste batzuenak batuta) eta/edo bestelako sarrerak batuta ezingo dira inolaz ere gastua baino handiagoak izan.

Zazpigarrena.- Diru-ekarpena egiteko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatuko balitz, edo Udalarenaz gain beste administrazio batek edo entitate pribatu edo publiko batek emandakoa jasoko balitz, gerta liteke emandako kopurua aldatzea.

Zortzigarrena.- Diru-ekarpena berrikusi egingo da eta, egoki bada, kendu, baldin eta hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Diru-ekarpenaren bidez bete beharreko baldintzak bete gabe gelditzea.
- b) Diru-ekarpena erabiltzea lortu beharreko helburua ez den beste helburu baterako.

Bederatzigarrena. - Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztirako, honako hauek aplikatuko dira: Diru-laguntzak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa; lege hori garatzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; Bergarako udaleko dirulaguntzen ordenantza orokorra; eta Bergarako aurrekontuetako udal araua.

Hamargarrena.- Diruz lagundutako ekintzek eragindako kalteen erantzulea Bergara kirol elkarteak bera izango da, eta Bergarako Udala kanpo gelditzen dela aitortzen du elkarteak.

Hamaikagarrena .- Alde bietako batek honako hitzarmen honetan hartutako betebeharretako edozein beteko ez balu, beste aldeak hitzarmena hautsi ahal izango luke, eta kalte-ordainak eskatu.

Eta adostasun froga gisa, bi aldeek dokumentu hau sinatzen dute goian aipatutako egun eta lekuan, eta nik, idazkariak, guztia egiaztatzen dut.



Mª Concepción Ugalde Izeta



Gorka Artola Alberdi

Iosu Elorza Alberdi

